

IRAKASGAIAREN TITULUA/ TÍTULO ASIGNATURA: [INTRODUCCIÓN A LA MÚSICA DEL SIGLO XX Y CONTEMPORÁNEA](#)

Irakaslea/Profesor/a: Manuel Torre Lledó

Ikasgaiaren azalpena/Descripción de la asignatura

Azalpenarekin eta entzutearekin, ikasle askorentzat berriak diren musikak erakustea, beti ondo tratatuak izan ez direnak eta gutxi erakutsi izan direnak kontserbatorioetan, musika eskoletan, irratietan eta unibertsitateetan. Oro har, XIX. mendearen amaiera arte izandako entzute jarrera ez bezalakoa eskatzen duten lanak dira, XX. eta XXI. mendeetan konposatutako lan askorentzat jada amaitu den tradizioa.

Gaitasunak/Competencias

XX. mendeko musikarako eta musika garaikiderako sarrera ikasgaia musika modernoa ulertzen hasteko tresna txiki bat eskaintzen ahalegintzen da, hizkuntza tradizionalaren aurrerapen eta garapen gisa. Horren helburua da konposizio moderno bat gauzatzen denean gertatzen denari buruz nolabaiteko kontzientzia ematea ikasleei.

Musikazale askorentzat, musika modernoa entzutea oztopo ia gaindiezina da. Desorientatuta eta gogaituta sentitzen dira, eta, askotan, probokazio baten biktima izatearen sentipenarekin nahasten dute.

Eskola horiei esker, ikasleek beren gaitzespenak gal ditzaten ahalegina egiten da, musika horiek gutxienez beldurrik eta deserosotasunik gabe entzun ditzaten.

Edukiak/Contenidos

Irakasgaia zazpi gai hauek osatuko dute:

- 1. gaia. POST-ERROMANTIZISMOA. R. Wagner ondorengo musikariak
- 2. gaia. JAUZIA HUTSEAN (A. Schönberg, K. Penderecky)

- 3. gaia. J.S. BACH, ABIAPUNTUA (Bach/Schönberg, Bach/Webern)
- 4. gaia. XX. MENDEKO MUSIKA EZEZAGUNA. INPRESIONISMOA (Debussy-Ravel)
- 5. gaia. ERRITMOA, BIZI INDARRAREN ADIERAZPENA (I. Stravinsky)
- 6. gaia. HOLOKAUSTORAKO MUSIKAK (K. Penderecky, B. Britten, H. Górecky)
- 7. gaia. XX. ETA XXI. MENDEETAKO MUSIKA ESPAINIARRA (M. de Falla, J. Guridi, C. Halffter, J. Torre)

Metodologia/Metodología

- Ikasleei azaltzea, azalpenen bidez eta XX. eta XXI. mendeetan konposatutako obrak entzunez, musika horiek gure garaiko musikak direla, eta zenbait obra guretzat bitxiak izan arren, Musika edozein diziplina artistikoren modu berean eboluzionatzen eta garatzen den artea dela erakusten laguntzen digutela, eta egoera politikoek, sozialek, historikoek... musikaren formari eta garapenari eragiten diotela.
- Gidatuta, obra garrantzitsuen konposizioak entzutea, zer unetan eta egoeratan konposatu ziren azalduz, eta, ahal bada, diziplina artistiko desberdinetako artistek egindako obren bilakaerarekin alderatuta.

Bibliografia/Bibliografía

- KÁROLI, Ottó. Guide pratique La Música moderna. Mondadori
- MARCO, Tomás. Historia cultural de la Música. Ediciones Autor
- GUT, Serge. El mundo contemporáneo. La música moderna de 1900 a 1945. Espasa
- TOSI, Daniel. Nuevas perspectivas de 1945 a la actualidad. Espasa
- HALFFTER, Cristóbal. El placer de la música- Síntesis
- KAMIEN, Roger. Music an appreciation. McGraw-Hill
- GRÄTER, Manfred. Guía de la música contemporánea. Taurus
-